

JAKINARAZPENA / COMUNICACIÓN

Arrasateko Udalak, ur ihesak ekiditeko eta ur kontsumoen kobrantza hobetzeko xedez, besteak beste, ur kontagailuak aldatzen hasi zen 2023ko irailaren 11an, teleirakurketa modalitateko kontagailuengatik. Aldaketa lau faseetan zehar gauzatu behar da.

Hori horrela, amaitu diren 1 eta 2. faseetako kontagailuen irakurketak teleirakurketa bidez jaso behar dira. Beraz, eranskinean azaltzen den kaleetako batean bizi diren eta kontagailua aldatu ez duten erabiltzaileek, **2025/2.Trimestreko** ur tasaren kobrantza egiteko, **BAZ-era (Biztanleen Arreta Zerbitzura, Arano eta Garcia maisu-maistrak 8) bertaratu beharko dira, uztailaren 14a baino lehen, ur irakurketa ematera.** Hori egin ezean, ur kontsumoa hiru hilero pilatzen joango da horrek dakarren prezio handitzearekin.

Halaber, kontagailu aldaketa ahalbidetu beharko dute, kontagailu aldaketaz arduratzen den KLIDAT enpresarekin harremanetan jarrita, kosturik gabe, 943 81 22 44 telefonora deituta edo ura@klidat.com posta elektronikora idatzita.

Edozein zalantza argitzeko Udalera dei dezakezu ERRENTA ETA EXAKZIO SAILERA 943252013 telefono zenbakira.

El Ayuntamiento de Arrasate, con el fin de evitar fugas de agua, así como para mejorar la cobranza de la tasa de agua, comenzó a modificar los contadores de agua el 11 de septiembre de 2023, por contadores de modalidad de telelectura. La modificación se va a realizar en cuatro fases.

De este modo, las lecturas de los contadores que se encuentran en las fases 1 y 2 que ya se han finalizado, se van a realizar mediante telelectura. Por ello, si vive en una de las calles que se indica en el anexo, y no ha cambiado el contador, deberá personarse **en el BAZ (Oficina de Atención al Ciudadano, Arano eta Garcia maisu-maistrak 8), antes del 14 de julio, y facilitar la lectura** del agua del **2ºTrimestre/2025**. En caso contrario, los consumos trimestrales se acumularán con el aumento de precio que ello supone.

Asimismo, deberá posibilitar la modificación del contador, poniéndose en contacto con la empresa responsable del cambio de contadores KLIDAT, llamando al teléfono 943812244 o escribiendo al correo electrónico ura@klidat.com.

Para aclarar cualquier duda puede llamar al Ayuntamiento al DEPARTAMENTO DE RENTAS Y EXACCIONES al número de teléfono 943252013.

Arrasaten, 2025eko ekainaren 18,
ALKATEA